GREGORIO ARRUEREN HERIOTZEKO MENDEURRENA (1890-1990)

GREGORIO ARRUEREN HERIOTZEKO MENDEURRENA

Zarautz, 1990-IV-21

Antonio Alberdi
herriko Alkatea

Euskaltzain agurgarri, agintari, Gregorio Arrueren senide, jaun-andreok, eguerdi on eta ongi etorri bero bat guztioi.

Gregorio Arrueren heriotzearen mendeurrena ospatzeko bildu gara hemen, Zarautzen hainbat urte eman zituen itzultzaile oparo honi ondo merezia daukan omenaldia egiteko.

Baina ospakizun ekitaldi honetaz gain egiten ari da beste lanik ere: XI. Lexikologi Jardunaldiak. Esan beharrik ez dago, zarauztar bezala, eta ziur nago zarauztar guztion izenean hitzegiten dudala, euskara etengabeko aldaketak jasaten ari den gizarte honi agokitzeko hain garrantzitsu den lan baten egoitza izateko gure herria aukeratzea ohore bat dela, Gregorio Arrue herrikide izana ohore haundi bat den bezalaxe.

Baina, askotan gertatu ohi den bezala, ezer gutxi dakigu Hernanin jaiotako zarauztar agurgarri honetaz eta beronen lanaz.

Izan dadila bada, bilera hau, gaur omentzen dugunari eta berarekin batera, bere lanari, itzulpengintzari, dagokien arreta eskaintzeko aukera.

Eta ez naiz gehiago luzatuko, gai honetan adituak direnek beren txostenen bidez Gregorio Arrue eta haren obraren berri eman diezaguten.

GREGORIO ARRUEREN MENDEURRENEAN

Zarauzko Udaletxean, 1990-IV-21

Jean Haritschelhar

Euskaltzainburuaren sarrera hitzak

Antonio Alberdi Zarauzko alkate Jauna,
Agintari jaun andereak,
Euskaltzainkideak
Jaun andereak, agur.

Ez da lehen aldia biltzen dela Euskaltzaindia Zarauz-ko udaletxe honetan. Duela zenbait urte, aurten bezala, Zarautz-en ospatu genituen Lexikografia-ko jardunaldiak eta orduan, orai bezala, Sanzeneako Kultur etxean egin ziren bilkurak. Eskerrak beraz zuri, Alkate Jauna, horrelako esku zabala erakutsiz. Jadanik idatziz egina baldin badut ere, nahi dizkitzut eskerrik beroenak errepikatu gaur Sanzeneako gela bat utzi baitiozu Euskaltzaindiari, gela horretan lanean ari direla Hizkuntz Atlaseko langileak.

1890.eko Apirilaren 21ean, duela gaur bertan ehun urte, pausatzen zen Zarautz-en, Don Gregorio de Arrue. Nahiz sortu zen Hernanin badakigu bere bizi guztia iragan zuela Zarautz-en eta Zarauztartzat har dezakegula. Hortakotz gara bilduak egun, Zarauz-ko udaletxeak nahi ukan baitu ohoratu Euskaltzaindiarekin batean XIX. mendeko Gipuzkoar idazle irakurtuenetarik bat.

Fama haundiko idazlea, orduko atzerritar hizkuntzalarien aholku emaile bilakatu zen, haien artean zirela Luis Luciano Bonaparte printzea eta bereziki Van Eys holandar gramatikalari ezagutua. Gipuzkoarra izanez landu du bereziki gipuzkera espainoletik itzulpenak eginez edo Bizkaieratik gipuzkerara emanez –ez baitira horiek itzulpenak– zenbait liburu, hala nola Juan Jose Mogel-en *Baserritar jaquitunaren echeco escolia* edo Juan Antonio Mogel-en *Peru Abarca* famatua, nahiz ez zen azken liburu hau bere bizian argitaratua izan.

Liburu asko idatzi ditu Gregorio de Arrue-k. Haien artean arrakastarik haundienekoa *Santa Genoveva-ren vicitza antziñaco denboretaco con-*

Zarautz, 1990-IV-21. *Ezkerretatik eskubitara:* J. A. Arana Martija, diruzaina; J. M. Satrustegi, idazkaria; J. Haritschelhar, euskaltzainburua; Antonio Alberdi, herriko Alkatea; Imanol Murua, Gipuzkoako Foru Diputatu Nagusia, eta Mari Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkari Nagusia.

dairen ederrenetaco bat... Tolosako Pedro Gurruchagaren irarkolan, 1868an argitaratua, bigarren edizio bat atera zelarik irarkola berean, 1882an. Tolosan berriz ere agertuko da *Bravanteco Genoveva-ren bicitz arrigarri miragarria* Cristobal Schmid-en liburuaren itzulpena Gregorio de Arrue-k egina. Egia erran, Brabanteko Genobeba-ren bizitza da Europa guztian maizenik erabilia izan den gaia, elaberri, kondaira, antzerki edo bertsutan. Erdi arotik heldu zaigu leienda eder hori, latinez lehenik, bainan, dirudienez, *Geneviève ou l'innocence reconnue*, Aita René de Cerisiers-en liburuak eman zion, argiratu zenetik 1649an, hedadura zabala. Liburu hau da baserritar antzerkien iturria. Probentzan eman zuten 1665ean *L'innocence reconnue ou Geneviève de Brabant* eta gero Biarnon *L'histoire de Geneviève de Brabant*, Bretainian ere *Le mystère de Geneviève de Brabant ou Tragédie de Sainte Geneviève*, Flandesetan XVIII. mendean bai neerlanderaz, bai frantsesez eta Italian XIX. mendean.

Ziberotar pastorala gai horretaz baliatu zen. XVIII. mendeko bukaerakoa da Pariseko "Bibliothèque nationale" delakoan dagoen esku izkri-

bua, 1123 berset dauzkana, eta Pierre Fourcade dit Hilloton pastoral errejentak jokaerazi zuen Maulen 1802ko Urtarrilaren 13an. Geroztik emana izan da Landan 1839an eta berriz ere Maulen 1846an. Dirudienez arrakasta haundia ukan zukeen, neskek emanikako pastoral bilakatu baitzen, Maulen jokatua lehenik 1849an, Uharte Garazin gero 1863an eta Muntorin azkenik 1878an. Orotarat sei jokaldi XIX. mendean.

Horiek horrela, nahi nituzke orain agurtu eta denbora berean eskertu Gregorio Arrue-ren ohoretan mintzatuko direnak. Aita Karmelo Iturria--ren txostena da: "Gregorio Arrue-ren biografia". Maite Etxaniz anderearen txostenaren titulua da: "Gregorio Arrue-ren Santa Genobebaz beste zerbait" eta Jose Antonio Arana Martija euskaltzainaren mintzaldia: "Gregorio Arrue Mazoren lehen itzultzailea".

Eskerrik asko.

GREGORIO ARRUEREN BIOGRAFIA

Karmelo Iturria

Zarautz, 1990-IV-20

Gaurko egunez ehun urte, hain zuzen ere, eta hementxe bertan, Zarautzen, eta leku honetatik oso hurre, Kale Nagusiko 39. zenbakian, "Etxezabala" deituriko etxean, hil zitzaigun Gregorio Arrue euskal idazle joria, 1890.go Apirilaren 20ean. Hari omenaldi hau eskaintzen dio Zarauzko Udalak Euskaltzaindiarekin batera.

JAIOTZA ETA LEHEN URTEAK

Hernanin jaioa zen Gregorio Arrue, 1811. urteko Maiatzaren 2lan, baina Zarauzko Udaletxeko agirietan ikusi ahal izan dugunez, hiru urte besterik ez zituela etorri zen Arruetar familia osoa gure herrira, bertan bere bizilekua jarriaz, lehen esandako etxean hain zuzen. Orduan, zarauztarrok herritartzat hartzeko eskubidea badugula deritzot. "Basarri" bertsolaria, errezildarra izanik, sei-zazpi urte zituela Zarautza bizitzera etorri zela-eta, zarauztartzat hartzen baldin badugu, arrazoi eta eskubide osoz zarauztar bezala har dezakegula uste dut baita Gregorio Arrue ere. Bego hau kontutan! Ez hori bakarrik. Ia bere bizitza osoa Zarautzen eman zuen eta hementxe bertan hil zen bati, bidezkoa dela deritzogu zarauztar izena ematea. Hernaniko herriari ezer kendu gabe noski! Fausto Arozena historilariak berak ere zera dio Euskalerriko Adiskideen Boletinean: "Y mozo aun, se traslado a Zarauz, en donde afinco su residencia, de suerte que se le tiene por muchos como nacido en la veraniega poblacion guipuzcoana, en la que murio en abril de 1890" (1). Horrek esan nahi du Zarautzen egin zituela lehenengo ikasketak, Zarautzen zapaldu zuela lehenengo aldiz eskola, Zarautzen hartu zuela Sendotzako sakramentua, Zarautzen egin zuela Lehenengo Jaunartzea, eta Zarauztik joan zela Arantzazura fraile izateko asmoz, geroago ikusiko dugunez, Zarautzen

(1) Fausto Arocena: «La versión guipuzcoana del "Peru Abarca", de Moguel», BRSAP, 1948, 166 or.

egon zela urte askotan eskola-maisu bezala, Zarauzko Udalan izan zela idazkari, eta azkenik Zarautzen hil zela gaur hain zuzen ehun urte. Zer gehiago behar dugu zarauztartzat hartua izateko?

Gregorio Arrue euskal idazlearen bataio-agiriak honela dio: "En veinte y dos de mayo de mil ochocientos y once Yo el infraescrito Vicario bautice á un niño, que nacio á las nueve y media de la noche de ayer, hijo legitimo de Juan Antonio de Arruebarrena (*barrena* hau gainetik ezabatua dago), natural del lugar de Berrobi y de Maria Ascensión de Errezola, natural de Alvistur: sus abuelos paternos Joaquin de Arruebarrena (berriro ere *barrena* ezabatua) natural también de Berrobi y Maria Francisca de Barandiaran natural de Tolosa; y los maternos Francisco de Errezola, natural de Beasain y Maria Joaquina de Loperegui natural de Goyaz; pusieronle por nombre Gregorio y fueron padrinos Patricio de Erreycenea y Maria Antonia de Yarza en nombre de Gregorio Arrola y Francisca de Yanci, á quienes adeverti el parentesco de la cognacion espiritual y la obligacion de instruirle en la Doctrina Christiana. D. Elías de Ugalde" (2).

Izen-deiturei buruz zenbait xehetasun: Izena hemen Gregorio bakarrik agertzen da, baina Sendotzako agirian eta Arantzazukoan *Gregorio Antonio*. Bigarren deitura hemen Errezola azaltzen da, baina geroko beste agiri gehienetan *Rezola*. Arruebarrena deiturari dagokionez, berriz, bataio-agirian bertan eskuineko ohar batean hauxe dager: "En virtud del auto despachado a nueve de enero de mil ochocientos veinte y nueve (Gregoriok hemezortzi urte zituelarik, beraz) por el Dr. D. Casildo Goyena Provisor y Vicario General de este Obispado a peticion del procurador de la parte D. Pedro Xavier Astrain se camvio el apellido Arruebarrena, poniendo en su lugar Arrue; borrando el aditamento barrena. Erice Vic.". Horra auzia garbitua!

Juan Antonio Arruebarrenak eta Maria Aszension Errezolak hiru seme-alaba izan zituzten: Maria Magdalena Frantziska, zaharrena, Gregorio Antonio bigarrena, eta Mikaela Josefa gazteena, 1816.ean jaioa. Hala azaltzen da beren sendotza-agirian. Zortzi urte zituela hartu zuen gure Gregoriok Sendotzako sakramentua. Honela dio agiriak: "Don Jose de Alzolavea Presbitero Vicario, Cura propio de la Iglesia Parroquial, matriz, Santa Maria la Real de la N. y L. villa de Zarauz, certifico, que el dia miercoles veinte, y ocho de julio de mil ochocientos diez y nueve, administro el Santo Sacramento de la Confirmacion el Ilmo. Sr. D. Joaquin Xavier de Uriz, y Lasaga, Obispo de Pamplona á los que anotaré en seguida, siendo padrinos de todos Dn. Fausto Ignacio de Corral, y Azlor, y Da. Manuela Suelves, y Azlor, Señores de la Casa de Zarauz".

---

(2) Elizbarrutiko Artxibategia, Donostia: *Libros Parroquiales, Parroquia de Hernani* (7), Libro 7.º de Bautizados, 1799-1831, 90 v. folioa.

Eta ondoren, banan-banan haurren izen-deiturak ipintzen ditu, alfabetikoki, A letratik hasita. Hirugarren folioan azaltzen dira hiru anai-arrebak: Maria Magdalena Frantziska, Gregorio Antonio eta Mikaela Josefa. Eta laugarrenean, berriz, Lazaro Valentin (1811), Jose Maria Matias (1814), Pedro Jose Joaquin (1816), eta Maria Magdalena Rafaela (1817) Balanzategui Altuna, azkenengo hau gure Gregorioren lehenengo emaztea izan zena, lauak Zarautzen jaioak, eta Bizente de Balanzategi eta Josepha Isidora Antonia Altunaren seme-alabak.

Eta honela amaitzen da Sendotza-agiria: "Y, para que conste quanto en estas doce ojas llevo anotado, firmaré yo el Vicario de Zarauz, advirtiendo, que de los confirmados en Aya no fueron Padrinos los expresados en el encavezamiento de este rol de Zarauz; nueve de septiembre de mil ochocientos, y diez, y nuebe. Dn. Jose de Alzolavea" (3).

621 haurrek hartu zuten Sendotzako sakramentua. Horietatik 8 sasikumeak, eta 6 Orion bizi zirenak. Beste 7 izen ere azaltzen dira, Zarautzen bizi zirenak baina Sendotza Aian hartu zutenak, urte bereko Uztailaren 29.ean.

Zarauztarrontzat interesgarri denez, hemen ipintzen ditut jasota gehien agertzen diren deiturak: Eizagirre 25 aldiz, Amilibia 23 bider, eta Bonetxea 21 aldiz. Gero, Aeta, Aginaga, Agirre, Agote, Aiestaran, Aizpuru, Alberdi, Albisu, Alkorta, Aldabaldetreku, Altuna, Alzuru, Amezti, Ameztoi, Aranburu, Arruti, Azpiazu, Arzalluz, Azkue, Balanzategi, Berazadi, Biquendi, Txapartegi, Zendoia, Cisnaga, Korta, Dorronsoro, Etxaide, Etxaniz, Etxabe, Etxenagusia, Etxebeste, Etxeberria, Etxezarreta, Egibar, Elberdin, Esnal, Galdos, Garate, Garmendia, Gereka, Goenaga, Gurmendi, Ibarguren, Iburutzeta, Iburuzketa, Illarramendi, Inarga, Intxausti, Indo, Iribar, Iruretagoiena, Izeta, Jauregi, Labaka, Laburu, Landa, Lazkano, Leunda, Lizaso, Makatzaga, Maiz, Manzisidor, Manterola, Mendizabal, Mitxelena, Munita, Murua, Nafarrete, Narbaiza, Oiarzabal, Olazabal, Oliden, Ostolatza, Otegi, Roteta, Sagarna, Salegi, Segurola, Sorazu, Sorreluz, Soroa, Uranga, Uria, Usandizaga, Uzcanga, Uzkudun, Zaldive, Zara, Zubiaurre, Zulaika, Zumeta, Zuzuarregi, etabar.

ARANTZAZURA FRAILE

Hemezortzi urte beterik zituela, Arantzazuko Santutegira joan zen Gregorio Arrue, frantziskotar fraile izateko asmotan. Zalantzarik gabe, pentsatzekoa da ordurako Zarauzko fraileekin harremanak izango zituela. Baziren orduan Zarauzko komentuan Euskal Literaturan oso ezagu-

(3) Zarauzko Parrokiako Artxiboa: Libro 3.º de Confirmados, años 1819-1890, 1 folioa eta hur.

nak diren frantziskotarrak, hala nola, Aita Pedro Antonio Añibarro, Aita Juan Mateo Zabala, Aita Jose Kruz Etxeberria, eta Aita Kristobal Linaza, besteak beste. Aita Añibarro gure Gregorio Arantzazura joan eta hurrengo urtean hil zen Zarautzen, artean Arrue Arantzazun zelarik. Aita Zabala, berriz, handik hamar urte geroago hil zen, 1840. urtean. Baliteke, bada, honekin harekin baino harreman gehiago izatea. Eta baita Aita Etxeberria, Linaza eta besteekin ere, geroago hilak bait dira, baina denak Gregorio Arrue oraindik bizirik zegoela. Baina hauek usteak eta susmoak dira, inolako agiritan oinarritu gabeak. Halere, geroago ikusiko dugunez, Arruek berak ematen digu horretaz pentsatzeko arrazoirik, hemengo frantziskotarrekin izan zituen harremanak aipatzerakoan.

Bada Arantzazuko Artxibuko Liburu zahar batean agiri bat, Gregorio Arrueren habitu hartzearen eta Arantzazutik irtetearen berri ematen diguna. Honela dio: "En cinco de Diciembre de mil ochocientos veinte y nueve yo Fr. Jose de Ugartondo Maestro de novicios 1.° y Guardian de este Convento de la Madre de Dios de Aranzazu di el habito de nuestra sagrada Religion para Coro á Gregorio Antonio de Arrue hijo legitimo de Antonio de Arrue natural del lugar de Berrobi, y de Maria Ascension de Errezola natural de Albistur: con remisiva de N.M.R.P. Provincial Fr. Juan Ruiz dando el debido cumplimiento á lo que ordenan nuestras Constituciones Generales. Fue bautizado en veinte y dos de Mayo de mil ochocientos once = Y para que conste firmé con el Discreto mas antiguo y dcho novicio; dichos dia, mes y año. (Se le dio á las siete de la mañana). Fr. José de Ugartondo, Guardian = Fr. Jose de Echeverria Pred. conv. 1.° = Gregorio Ant.° de Arrue". Eta ondoren hauxe: "El mencionado novicio Gregorio Ant.° de Arrue fue expelido por enfermo de orden del R.P. Prov. Fr. Damaso Suso, é intimadole dicha orden en presencia del P. Guardn, y Discretos marchó a su casa con su padre el dia 15 de Febrero de 1831. Fr. Jose de Ugartondo, Guardian" (4).

Urtebete eta bi hilabete iraun zuen, bada, Gregorio Arruek frantziskotar habituz jantzita. Ez zuen, ez, garai egokia aukeratu Arantzazura joateko, hango paraje haietan Abenduan hotzak, ekaitzak eta eurite eta elurteak ugariak bait dira. Eta gaisorik egonez gero, nork jasan hango giro gogorra!

GREGORIO ARRUE ESKOLA MAISU. EZKONTZAK ETA SEME-ALABAK

Zarautzen dugu, bada, berriro ere, gure Gregorio. Eta aurki ikusten dugu berriz zerbait egiten. Zer eta Eskola Maisu, alajaina! Handik hiru

(4) Arantzazuko Artxibategia: *Libro de Recepciones y Profesiones de Novicios en Aránzazu,* 1753-1833-XIII, 133. folioa.

urtetara hasia da iadanik eskolak ematen, 1834. urtean hain zuzen. Ez dakigu non egin zituen Maisu ikasketak, baina Donostian edo egingo zituela pentsatzekoa da, Oñatin egin ez bazituen. Eskolak ematen ari zen, bai, baina ba al zuen Maisu titulurik? Honetaz aurkitu ahal izan dugun agiri bakarra, Hernaniko Kultur Etxe ederreko Artxibokoa da, eta bertako artxibari gazte eta prestuari esker jasoa. Honela dio: "Hallandose en mi poder un titulo de Maestro de Instruccion primaria elemental expedido á favor de D. Gregorio de Arrue natural de esta Villa, se servira v. manifestar al interesado se presente en la Secretaria de este Gobierno de Provincia, á firmar y recoger dicho titulo. Dios que guarde a V. muchos años. Tolosa, 27 de Octubre de 1850. (Izen-deiturak ulertezinak) Al Alcalde de Hernani" (5). 1850. urtean gaude, beraz.

Ordurako Gregorio Arruek bere bizitzan pausu garrantzitsuak emanak zituen: ezkonduta zegoen, horra! Arantzazutik irten eta handik sei urtetara ezkondu zen, 26 urte betetzear zituelarik, lehen berarekin batera Sendotza hartzen ikusi dugun Maria Magdalena Rafela Balanzategirekin. Honela dio ezkontza-agiriak: "En diecisiete de Mayo de mil ochocientos treinta y siete yo Dn. Miguel de Lazcano vicario interino de la Iglesia Parroquial Santa Maria la Real de esta villa de Zarauz, asisti y me halle presente al Santo Sacramento del Matrimonio que conforme manda la Santa Madre Iglesia, y el Santo Concilio de Trento, contrajeron entre si por palabra de presente Dn. Gregorio de Arrue, soltero, natural de Hernani, hijo legitimo de Juan Antonio Arrue, natural de Berrobi, y de Maria Ascensión de Rezola natural de Albistur, residentes en Zarauz: y Da. Maria Magdalena Rafaela de Balanzategui, soltera natural de Zarauz, hija legitima de Dn. Vicente de Balanzategui natural de Mondragon residente en Zarauz, y de Da. Maria Josefa de Altuna natural de Zarauz, difunta. Para cuya celebración precedieron las tres proclamas que dispone el Santo Concilio de Trento en esta Iglesia Parroquial tan solamente por quanto el dicho Gregorio ha residido en esta villa desde la edad de tres años: la confesion y comunion que recivieron en la misa nupcial que oyeron, y aunque no hubo consentimiento de parte de Dn. Vicente Balanzategui (emaztearen aita bera), que no quiso prestar, pidio por tribunal secular, y el Juez mando se casasen sin dilación. Y no haviendo resultado impedimento alguno, se hallaron presentes por testigos Dn. Joaquin de Amilivia, Andres Alberdi, y Miguel Ramon de Gorriaran, naturales de Zarauz, donde residen: Y para que conste firmo, Dn. Miguel de Lazcano" (6).

Hiru seme-alaba izan zituen Gregorio Arruek Maria Magdalena Balanzategirekin: Joan Kruz Ramon Nonnato, Josefa Joakina, eta Gregorio

(5) Hernaniko Artxiboa, B-5-1-1, Exp. 3.

(6) Elizbarrutiko Artxibategia, Donostia: *Libros Parroquiales, Parroquia de Zarauz* (9), Libro 5 de Casados, 1819-1841, 16 zenb. 143. folioa.

Antonio. Lehentxeago ikusi dugun ezkontza-agiritik antzeman zitekeenez, ezkondu zireneko, haurdun zegoen Maria Magdalena bere emaztea, ezkondu eta handik bost hilabetetara jaio bait zen lehenengo semea, Joan Kruz Ramon Nonnato. Hona bere bataio-agiriak dioena: "En veinticuatro de Noviembre de mil ochocientos y treinta y siete yo Dn. Miguel de Lazcano presbitero Vicario interino de la Iglesia Parroquial Santa Maria la Real de esta Villa de Zarauz bautize solemnemente en dicha Iglesia a un niño que segun me informaron nació á las dos de la misma tarde, hijo legitimo de Dn. Gregorio de Arrue natural de Hernani y Da. Maria Magdalena Rafaela de Balanzategui, natural de Zarauz donde residen: Abuelos paternos Juan Antonio de Arrue, natural del lugar de Berrobi, y de Maria Ascension de Rezola, natural de Albistur, residentes en Zarauz: Maternos Dn. Vicente de Balanzategui, natural de Mondragon, residente en Zarauz y Da. Maria Josefa de Altuna natural de Zarauz, difunta: pusosele por nombre Juan de la Cruz, Ramon Nonnato: Fueron sus padrinos sus abuelos paternos a quienes adverti el parentesco espiritual y demas obligaciones, y firmo Dn. Miguel de Lazcano" (7).

Handik bi urte eta bi hilabetetara jaio zitzaion bigarrena, alaba, Josefa Joakina, 1840.urteko Urtarrilaren 27an. Eta honengandik beste bi urtetara hirugarrena, semea, Gregorio Antonio, 1842. urteko Maiatzaren 12an. Josefa Joakinaren bataio-agiriak honela dio: "En veinte y siete de Enero de mil ochocientos cuarenta, yo Dn. Miguel Jose de Alzuru Presbitero Beneficiado Coadjutor de Vicario de la Iglesia Parroquial Santa Maria la Real de esta Villa de Zarauz con comision de Dn. Fco. Placido de Segura Presbitero Vicario interino de la misma, bautice solemnemente en ella á una niña que nació á las cinco de la tarde de ayer, hija legitima de Dn. Gregorio de Arrue, natural de Hernani, y de Da. Maria Magdalena Rafaela de Balanzategui, natural de esta, donde residen: abuelos paternos Juan Antonio de Arrue, natural de Berrobi, y Maria de la Ascension (sic) de Rezola, natural de Albistur, maternos Dn. Vicente de Balanzategui natural de Mondragon, y Da. Josefa de Altuna natural de Zarauz, difunta: pusosele por nombre Josefa Joaquina: fueron sus padrinos Dn. Joaquin de Amilivia, y Da. Micaela Josefa de Balanzategui naturales de Zarauz, donde residen, á quienes adverti el parentesco espiritual y demas obligaciones, y firmamos ambos. Dn. Miguel Jose de Alzuru Dn. Franco Placido de Segura" (8). Eta hona Gregorio Antonioren bataio-agiriak dioena: "En doce de Marzo de mil ochocientos y cuarenta y dos, yo Dn. Fco. Placido de Segura Presbitero Vicario interino de la Iglesia Parroquial Santa Maria la Real de la Villa de Zarauz, bautice solemnemente á un niño que nacio a las nueve y media de su

(7) Ibid.: *Libros Parroquiales, Parroquia de Zarauz* (6), Libro 6.º de Bautizados, años 1826-1858, 53 zenb., 129. folioa.

(8) Ibid. ibid., 7 zenb., 147 v. folioa.

mañana, hijo legitimo... (lehen bezala): abuelos paternos (lehen bezala) residentes en Zarauz: maternos Dn. Vicente de Balanzategui natural de Mondragon, residente en la Provincia de Leon, y Da. Josefa Altuna, natural de Zarauz, difunta. Pusosele por nombre Gregorio Antonio: fue su padrino el abuelo paterno, á quien adverti el parentesco espiritual, y demas obligaciones, y firme. Dn. Franco Placido de Segura" (9).

Ez zuen zorte haundirik izan Gregoriok Maria Magdalena bere emaztearekin, hirugarren semea izan eta handik lau hilabetetara zendu egin bait zitzaion, 1842. urteko Irailaren 6an hain zuzen, 24 urte besterik ez zituelarik. Honela dio bere heriotz-agiriak: "En seis de Septiembre de mil ochocientos cuarenta y dos murio Da. Maria Magdalena de Balanzategui de edad de 24 años, natural de esta de Zarauz, casada con Dn. Gregorio de Arrue natural de Hernani, parroquianos de Zarauz: recibio los santos sacramentos de penitencia, viatico, y extremauncion; no testo. Al dia siguiente su cadaver fue conducido a esta Iglesia Parroquial, donde se le hicieron los sufragios acostumbrados, y desde ella fue trasladado al cementerio de la Villa, donde fue sepultado. Y para que conste firmo yo el vicario interino Dn. Franco. Placido de Segura" (10).

Gure Gregorio emazterik gabe bakarrik gelditu zen. Bakarrik ez, berarekin bait zituen bere gurasoak eta bere hiru seme-alabak. Baina ezin zuen etsi emakumerik gabe nonbait eta handik hiru hilabete t'erdira berriro ezkontzen da, oraingoan Tolosan, Beasaingo alaba batekin, Josefa Antonia Leundarekin, alegia. Hona ezkontza-agiri honek dioena: "Dia veinte y siete de Diciembre de mil ochocientos cuarenta y dos, habiendo publicado las tres proclamas en la Parroquial de Zarauz, y en esta de Tolosa, de las cuales no resulta impedimento alguno, enterado del consentimiento grádual de los interesados de los contrayentes (sic), y de que haviendo sido aprobados en la Doctrina Cristiana recivieron los Santos Sacramentos de la penitencia y comunion, yo el infto Vicario interino de la Parroquial Santa Maria de esta dicha villa asisti al Matrimonio que por palabras de presente y como lo manda la Santa Madre Iglesia contrajeron Dn. Gregorio Arrue, natural de Hernani y vecino de Zarauz, de edad de treinta y dos años, viudo de Da. Maria Magdalena de Balanzategui, de profesion maestro de primera educacion, y Da. Josefa Antonia Leunda, natural de Beasain y vecina de Tolosa de edad de treinta años, soltera: Padres del contrayente Dn. Juan Antonio de Arrue, natural de Berrobi, su profesion Labrador, y Da. Maria Ascension Rezola, natural de Alvistur y vecinos de Zarauz: Padres de la contrayente, Juan Bautista Leunda, su profesion Labrador y Maria Nicolasa Elizalde, naturales de Beasain ya

(9) Ibid. ibid., 13 zenb., 167. folioa.

(10) Ibid.: *Libros Parroquiales, Parroquia de Zarauz* (14), Libro 4.º de Finados, 1836-1885, 38 zenb., 32 folioa.

difuntos: siendo testigos Dn. Manuel Iñarra, natural de Vergara y vecino de Tolosa, y Dn. Manuel Gonzalez, natural de Aya y vecino de Zarauz, sita en esta Prov. de Guipuzcoa. Y porque conste firmo Dn. José Francisco de Elizarán" (11).

Bigarren emazte honekin beste hiru seme-alaba izan zituen: Jose Maria Frantzisko, Maria Balbina eta Frantziska Ignazia. Hiruen bataio--agiriak ipiniko ditut hemen laburbilduta: 1) *Jose Maria Frantziskorena:* "En cinco de Febrero de mil ochocientos cuarenta y cuatro yo Dn. Franco Placido de Segura (lehen bezala) bautice solemnemente en ella á un niño que nacio a la seis de la mañana del mismo dia, hijo legitimo... (lehen bezala) y de Da. Josefa Antonia de Leunda, natural de Beasain, parroquianos de Zarauz: abuelos paternos... residentes en Zarauz: maternos Juan Bautista de Leunda, y Nicolasa de Elizalde naturales de Beasain difuntos. Pusosele por nombre Jose Maria Francisco: fue su madrina Francisca de Narbaiza, natural y parroquiana de Zarauz... (lehen bezala)" (12). 2) *Maria Balbinarena:* "En treinta y uno de Marzo de mil ochocientos cuarenta y seis, yo el infraescrito Presbitero vicario propio de la Iglesia Parroquial Santa Maria la Real de la N. y L. villa de Zarauz, bautice solemnemente y puse por nombre Maria Balbina á una niña que me informaron haber nacido a las seis y media de la mañana del mismo dia, hija legitima... (lehen bezala) y parroquianos mios, nieta por la linea paterna de Juan Antonio natural de Berrobi y Maria de la Asuncion (sic) de Rezola, natural de Albistur y parroquianos mios: por la materna de Juan Bautista y Maria Nicolasa de Elizalde, naturales de Beasain, ya difuntos. Fue su Madrina Maria Carmen de Uzcanga, natural de Deva y parroquiana mia, a quien adverti el parentesco espiritual y demas obligaciones que contrajo. Y para que conste firmo yo el vicario Dn. Luis de Guereca" (13). 3) *Frantziska Ignaziarena:* "En nueve de Marzo de mil

(11) Ibid.: *Libros Parroquiales, Parroquia de Santa Maria de Tolosa,* Libro 8 de Casados, 1806-1847, 127 zenb., 269 v. folioa. Zarauzko Parrokiako Artxiboan ere bada ezkontza honen berri: *Libro de Velados que dio en principio en cuatro de Septiembre de mil setecientos tres hasta mil ochocientos setenta y dos*: "En catorce de Junio de mil ochocientos cuarenta y tres recibieron las bendiciones, y oyeron la misa nupcial por mi ministerio Dn. Gregorio de Arrue natural de Hernani y Josefa Antonia de Leunda natural de Beasain, parroquianos de Zarauz, casados en Tolosa. Y para que conste firmo yo el vicario interino. Dn. Franco Placido de Segura", 1843, 83 folioa. Eta beste liburu honetan ere bai: *Libro 6.º de Casados y Velados de la Parroquia de Zarauz*, 1842-1892: "Dia veinte y seis de Diciembre de mil ochocientos cuarenta y dos di certificado de haber hecho en esta Iglesia Parroquial las tres proclamas, y no haber resultado impedimento para el matrimonio, que intentan contraher en Tolosa Dn. Gregorio de Arrue, parroquiano de Zarauz, y Josefa Antonia de Leunda, parroquiana de Tolosa. Y para que conste firmo yo el vicario interino Dn. Franco Placido de Segura", 1842, 6 folioa.

(12) Ibid.: *Libros Parroquiales, Parroquia de Zarauz* (6), Libro 6.º de Bautizados, años 1826-1858, 11 zenb., 183 folioa.

(13) Ibid. ibid., 12 zenb., 202 v. folioa.

ochocientos cuarenta y nueve, yo el infraescrito... (lehen bezala) y puse por nombre Francisca Ignacia á una niña que nacio á las cinco de la tarde precedente, hija legitima... nieta por la linea paterna de Juan Antonio natural de Berrobi y todos tres parroquianos mios, y Maria de la Asuncion de Rezola natural de Albistur difunta: y por la materna de... difuntos. Fueron Padrinos Ignacio Fco. Jose de Iburuzqueta natural de Zarauz y Micaela de Zabalo, natural de Vergara, y parroquianos mios, á quienes adverti el parentesco espiritual y obligaciones que contrajeron. Y para que conste firmo yo el vicario Dn. Luis de Guereca" (14).

Sei seme-alabekin eta bere aitarekin bizi zelarik, nahiko lan bazuen Gregoriok etxean eta kanpoan. Ama, Maria Aszension (*Asunzion* beste agiri batzutan) Rezola, seigarren alaba jaio baino bi urte aurretik hil zitzaion, 1847.urteko Otsailaren lehenengo egunean, 78 urte zituelarik. Hona bere heriotz-agiriak dioena: "En uno de Febrero de mil ochocientos cuarenta y siete murio en esta villa de Zarauz, de edad de setenta y ocho años, Maria de la Asuncion de Rezola, natural de Albistur, casada con Juan Antonio de Arrue, natural de Berrobi y parroquianos mios: recibio los Santos Sacramentos de la Penitencia, viatico y sub condicione la Extrema unción: no testo: al siguiente dia fue conducido su cadaver a la Iglesia Parroquial de esta Villa, y hechos los sufragios de costumbre, fue trasladado al Cementerio de la misma, donde yace sepultado. Y para que conste firmo yo el vicario Dn. Luis de Guereca" (15).

1849. urteko Urriaren 5ean, berriro ere Sendotzak izan ziren Zarautzen. Eta oraingo honetan, Sendotza harturikoen artean, Gregorio Arrueren azkenengo hiru seme-alabak azaltzen dira, arestian aipatu ditugunak. Baina zeharo harritzekoa: beste hiruak, lehenengo emaztearekin izan zituenak ez dira agertzen. Zer pasa ote zen? Ez ba jakin! Eta ez da txantxetako gauza: lehen esan dugu Gregoriok berak eta bere lehenengo emazteak, Maria Magdalena Balanzategik, 1819. urteko Uztailaren 28an hartu zutela Sendotzako sakramentua. Handik hiru urtetara heldu zen berriro Iruñeko Gotzaina Sendotza ematera, 1832. urteko Urriaren 17an hain zuzen. Gregorio artean ezkongabea zen. 740 haurrek hartu zuten orduan Sendotza: 346 gizakumek eta 374 emakumek. Iruñeko Gotzaina Sebero Adriani Jauna. 1849. urtean berriro ere Gotzain berbera dator Zarautza Sendotza ematera. Bitarte horretan ez da agertzen Iruñeko Gotzainaren Pastoral Ikustaldirik, ez Sendotza ematerik. Eta azkenengo honetan Gregorio Arrueren azkenengo hiru seme-alabek hartzen dute Sendotza eta lehenengo hiruek ez. Horra misterioa, eta oraingoz ezin argituzko misterioa noski! On Luis Gereka zen urte hartan Zarauzko

(14) Ibid. ibid., 12 zenb., 221 folioa.

(15) Ibid.: *Libros Parroquiales, Parroquia de Zarauz* (14), Libro 4.º de Finados, 1836-1885, 7 zenb., 48 v. folioa.

Bikario berria, Zarauzko semea bera. Honela dio agiriak: "D. Luis de Guereca, Presbitero, Cura propio de la Iglesia Parroquial matriz Santa Maria la Real de la N. y L. villa de Zarauz: Certifico que el dia viernes cinco de Octubre de mil ochocientos cuarenta y nueve administró en ella el Santo Sacramento de la Confirmación el Exmo. é Illmo. Sr. Dr. Severo Adriani, Obispo de Pamplona, Senador del Reyno, del Consejo de S.M., á los que anotaré en seguida; siendo Padrinos de todos los Sres. D. Manuel Maria de Areizaga y Da. Josefa de Corral, Marqueses de Narros, vecinos de esta Villa" (16). Narrosko Markesak izan ohi ziren nonbait aspaldiko garai haietan Sendotza hartzen zuten haurren aita-amabitxi. 799 haurrek hartu zuten orduan Sendotzako sakramentua: 404 gizakumek eta 395 emakumek. Haien artean 11 sasikume.

GREGORIO ARRUE EUSKAL IDAZLE ETA ITZULTZAILE

Bienbitartean, Gregorio Arrue lanean ari da jo eta ke, bai eskolak ematen, bai beste zeregin berezi batean ihardunaz: erdaratik euskarara liburuak itzultzen, alegia. Ez zen nolanahiko lana noski! 1858. urtean argitaratu zuen lehenengo aldiz Donostian Santiago Mazo apaizaren "Cristauaren Dotrinaren jaquinbide azaldua", geroago beste argitalpenak ere izango zituen liburua. Handik bost urtetara, 1863. urtean azalduko da "Cristauaren escu liburua"; hau ere geroago behin eta berriz argitaratua izango da. 1866. urtean argitaratzen du "Aita San Ignazio gloriosoaren bicitza, Azpeiti-Azcoitietaco person ascoren erreguz", hau ere geroago berrargitaratua. Eta horrela ekingo dio etengabe liburuak itzultzeari eta argitaratzeari. Nondik ateratzen ote zuen nahiko asti gure on Gregoriok, eskola maisu bezala zituen zereginen artean, hainbat eta hainbat liburu euskaratzeko eta argitaratzeko? Lan eskerga benetan urte haietan Gregorio Arrue pijoak burutu zuena! Ez bait da txantxetako kontua, eskola ordu nekagarriak jasan ondoren, halako liburu pila euskaratzeko beta aurkitzea... Benetan urte oparoak eta joriak haietxek Gregorio Arrueren bizitzan! Eta horrela azaltzen dira bata bestearen ondoren, "Baserritar jaquintsuaren echeco escola D. Juan Jose Moguel Marquinaco apaizac vizcai-eusqueran atera eta D. Gregorio Arruec Guipuzcoacoan itzulia" 1878. urtean, "Oracio mental edo pensamentuzcoa iduquitzeco gai egoquiac escu-liburua, Jesusen compañiaco Aita Villacastiñoc Gaztelaniaz eguin zuenetic D. Gregorio Arruec eusquerara itzulia", 1880.ean. Eta hurrengo urtean, 1881.ean, "Mariaren Gloriac, San Alfonso Ligorioc eguin eta Jesusen Compañiaco aita Ramon Garciac gaztelaniara itzuli

(16) Zarauzko Parrokiako Artxiboa: Libro 3.º de Confirmados, años 1819-1890, 29 eta 33. folioak.

zuanetic D. Gregorio Arruec eusqueraz ipiñia". Eta 1883. urtean, "Jesusen Biotzaren debocioa eracusteco Jesusen Compañiaco aita Sebastian Mendiburuc nafar eusqueran atera zuan liburutic D. Gregorio Arruec Guipuzcoara itzulia". Eta urte hartan bertan, "Sarritaco Comunioaren ganean Segur Jaunac francesez eguin zuan liburua D. Gregorio Arruec eusquerara itzulia". Eta urte berean, "Salvacioco Aingura edo bertutean biciro aurreratceco cristauai bide eta gai egoquiac... Jesusen compañiaco aita Jose Machec gaztelaniaz eguin eta D. Gregorio Arruec eusquerara itzulia". Urte berean hiru liburu argitaratuak, alajaina! Hurrengo urtean, 1884.ean, "Cristau egùiazcoaren jaquintasun aundi eta arrazoi-bide zuzena". Eta hurrengoan, bere libururik ezagunena eta famatuena, "Brabanteco Genovevaren bicitz arrigarri miragarria, Cristobal Schmid-ec eguin eta eusquerara itzulia D. Gregorio Arruec", duela hogeita hamar urte Zarauzko Itxaropena argitaldariak bere Kulixka Sortan berriro argitaratua. Eta 1886. urtean, "Cerura igotzeco escallera gaztelaniazco cenbait liburu esleitutatic atera eta D. Gregorio Arruec eusqueraz ipiñia" (17).

Eta hurrengo urteetan beste liburu eta liburuxkak, bederatziurrenak eta beste. Ez bait dago hemen zerrenda osoa ipini beharrik eta ipintzerik ere! Harrigarria benetan Gregorio Arrueren lana! Ez zuen denbora alferrik galdu, ez! Aipatzekoa da bereziki hura hil ondoren argitaratu zen Juan Antonio Mogelen "Peru Abarca" liburu famatua, bizkaieratik gipuzkerara Gregorio Arruek aldatua. Liburu honetan hain zuzen azaltzen dira, sarrera aurreko ohar batean, nik lehenago aipatu nahi izan ditudan hitzak, Zarauzko frantziskotar fraileekiko harremanei buruzkoak, alegia. Honela dio: "Existiendo en poder de varias personas copias manuscritas de esta utilísima obra, llenas en general de defectos, se advierte que esta versión se ha hecho del original que se conserva en el convento de los RR.PP. Franciscanos de Zarauz los que se han prestado generosamente a facilitárnoslo en aras del movimiento bascófilo que felizmente se desarrolla de día en día de muy pocos años a esta parte" (18). Halaxe da: "Peru Abarka" liburuaren esku-izkribua gure komentuko artxiboan aurkitzen da, aspalditxotik ezaguna denez. Honek esan nahi du, Gregorio Arruek harreman estuak zituela gure Zarauzko komentuko fraileekin. Lehen eman ditugu ezagun zitzakeen fraile batzuen izenak. Jakina da, Zarauzko fraileek, beste komentutako hainbatek bezala, 1840. urtean komentutik irten egin behar izan zutela, komentutik jaurtikiak eta barreiatuak izan zirela. Ordutik aurrera, 1878. urtean behin betiko —oraingoz noski!— hona itzuli arte, gure Zarauzko komentuak gorabehera asko izan zuen, eta orain gauza baterako bihar besterako erabilia izan zen. Eskolak emateko ere bai. Eta badakigu hementxe eman zituela bolara batean

(17) Fausto Arocena: «La versión guipuzcoana del "Peru Abarca", de Moguel», BRSAP, 168-170 or.

(18) Ibid., 176 or.

Gregorio Arruek bere eskolak, eta gure komentuan bertan ere aldi batez bizi izan zela, nahiz eta bere etxea Kale Nagusian eduki. Urte hauetan izan zuen hain zuzen ere Gillermo van Eys eta bere emazte Matilderen bisita. Bi urtetan heldu ziren gure herrira holandar senar-emazte hauek: 1866. eta 1868. urtetan. Matilde emazteak ematen digu zehatz-mehatz ikustaldi horien berri. Oso hizkera gozo eta politean kontatu ere. Honela dio (neuk euskaratu dut noski): "Nire senarrak Arrue jauna ezagutu zuen, komentu zahar batean bizi zen eskola maisua (gure komentua da noski). Ez ditut gauzak zehazki gogoratzen, baina badaiteke nire senarrak hotelean genuen gela kaskarra zela komentatzea, eta Arruek bere etxean gela bat eskaini zigun alokairuan. Dena den, komentu zaharrera joan ginen logela zuen gela batera, nahiko alaia bera. Baina onena onaren etsai dela egia baldin bada, txarra noski txarrena baino hobea da. Bi ohe zituen gela horrek, bata gelan bertan eta bestea barrurago. Azkenengo honetan sartu nintzen ni; egun batzuk bakarrik neramatzan erabiltzen eta senarrari arkakosoak zirela-eta nire kexua azaldu nion; nire senarrak, sinetsi ezinik, "nire irudipenak" zirela esan zidan eta oheaz aldatzea proposatu. Nik baietz eta bera komentzi zedin zain egon nintzen; ez zen denbora asko pasa eta egia, gela hartan ezin zela bizi. Biaramonean Arrueri esan gertatzen zena, eta nahigabez esan zigun enkante batean erosi berria zela ohea". Lekuz aldatu beharra izan zuten senar-emazteek. Orduan ere gerora bezala famatuak ziren nonbait Zarauzko komentu zaharreko arkakosoak!...

Bigarren ikustaldia handik bi urtetara, 1868. urtean, egin zuten. Orduko berri zehatz-mehatz eta oso poliki ematen digu Matilde emazteak, "egunerokoa" bezalakoa idatzi bait zuen. Hona zati batzuk: "*Ostirala.* Nire senarra Arrue eta Velasco jaunak ikustera joan da. Arrue arratsaldean etorri da euskara irakastera (Velasco hori "Villa Munda" edo "Zeleta berri" eta orain Udal Musikategia dena eraiki zuen sendagile xelebre bat izan zen). *Larunbata.* Bero ikaragarria (Kontutan izan Abuztuan gaudela). Itsasoa urdin, garbi eta zakarra. Arrue etorri da. Haren komentu zaharra orain anaia misiolariek okupatua dago. Piso bat du Arruek etxe berri batean eta eskola harategi ondoan du. Bere semearen emaztea hil egin zen, baina semea berriz ezkondu da (aita bezala, diot nik)... *Ostirala.* Nire senarra komentura joan da, fraileekin euskarari buruz mintzatzera. *Larunbata.* Nire senarra berriro joan da fraileen komentura eta atzo ezagutu zuena baino fraile atseginagoa aurkitu du. *Igandea.* Fraileek ezin izan diote jaramonik egin nire senarrari... *Ostirala, 18.* Arruek liburu bat eman dit bizkaieraz. Ez dut titulurik gogoratzen; ezin nuen irakurri noski, eta nire senarraren liburuekin nahastuta geldituko zen. *Astelehena, 21.* Iraultza hasi dela diote eta Erregina Donostian dela zer egin jakiteke. Aspalditik somatzen zen halako zerbait... Berri hauetaz Arruekin hitzeginez, nire senarrak adierazi zion berehala Espainia uzteko gure asmoa; baina Arrue oso baikorra zen eta esan zion: lasai egon, ez

du inork bere burua hautsiko Erreginagatik. Zortzi egun barru, borrokan zebiltzan, karlista alderdiak Euskal Herria altxarazi bait zuen Espainiaren aurka, hauen menpean galdu bait zituzten euskaldunek beren abantailak". Eta hemen amaitzen dira Matilde Van Eysen kontu politak (19).

Garai honetan izan zuen baita ere Luis Luziano Bonaparte Printzearen bisita, zein urte eta egunetan izan zen zehazterik ezin izan dugularik. Dena den, 1878. urteko Irailaren 24ekoa da Gregorio Arruek Printzeari idatzi zion eskutitza (20). Bertan Arruek Jose Frantzisko Aizkibel hiztegigile famatuaren paper batzuk eskaintzen dizkio Bonaparteri. Eta eskutitzaren azkenean hauxe esaten dio: "Etzera kontura(tu)co nosqui ni nor edo zein naizan, eta beragatic esan behar dizut, Jauna, San Luis Gonza-(ga)ren bicitza eta Kardaberazen dotriña-liburua Zarauzen zuri eratu zizkitzuna naizala". Ziur da, beraz, Printzearen ikustaldia aurretik izan zela.

Bestaldetik, badakigu Donostian antolatzen ziren Euskal Lore Jokuetan, 1882. eta 1884. urteetan sariak jaso zituela gure Gregorio Arruek. Guzti horrek argi eta garbi jartzen du gure gizonaren balio estimagarria.

ZARAUZKO UDALETXEAN IDAZKARI

Baina bada oraindik besterik, eta honekin bukatzera noa. Bada Gregorio Arrueren bizitzan oso gutxi ezaguna den alderdi bat: Zarauzko Udaleko idazkari izan zela, alegia. Halaxe izan zen, bada, nahiz eta zeregin horretan denbora askorik ez iraun. Hilabete batzuk bakarrik iraun zuen, 1876. urteko Martxoaren 17an hasi eta urte bereko Abuztuaren 27an bukatu, bost hilabete besterik ez. 13 Agiri edo Akta izenpetzen ditu idazkari bezala, eskola maisu onari dagokion letra txukun eta dotorearekin izenpetu ere. Baina bere letra txukun hori aurretik eta ondoren ere beste agiritan azaltzen da, berak izenpetu gabe. Nonbait berak idazten zituen aktak; letra oso ona zuelako ote? Ez jakin ba! 65 urte zituen artean, oraingo usadioz jubilazio urtea. Eta hain zuzen lehenengo agirian Jose Mari Arrue bat azaltzen da lehenengo Alkate bezala. Bazuen Gregoriok seme bat Jose Maria Frantzisko Arrue zeritzana eta 1844. urtean jaioa. Hura ote? Ezin inolaz ere ziur esan. 32 urte izango zituen semeak orduan. Gregorio Arruek aurrena "secretario interino" jartzen du, geroago sinadura bakarrik: *Gregorio de Arrue* beti. Bere aurretik, Fausto Berazadi ezaguna azaltzen da "secretario interino" bezala, baina honek ez

(19) Karmelo Iturria: *Euskal Literatura Zarautzen*, in *Zarautz-ko gorabeherak historian zehar*, Itxaropena, S.A., Zarautz, 1987, 437-445 or.

(20) H.V.B. (Hermano Valentin Berriotxoa): «Carta de Gregorio Arrue a L.L. Bonaparte», BRSAP, 1960, 101-103 or.

ditu agiriak izenpetzen, Gregorio Arruek baizik, nahiz eta haren sinadura ere azaldu, Zarauzko Udaletxeko "Depositario y Recaudador de Fondos Municipales de esta Villa" bait zen bera.

Geroago Alkate bezala, Frantzisko Manuel Egaña agertzen da. Oso gizon ezaguna izan zen hau Zarautzen lehengo mendean. Nik lerro batzuk eskaini nizkion duela hiru urte Zarauzko 750. Mendeurrenean argitaratu zen "Zarautzko gorabeherak historian zehar" liburuan, 62-63. orrialdeetan. Euskal olerkaria bera, "Lizardi" zenaren aitona amaren aldetik, Zarauzko Alkate ez ezik, Madrileko Parlamentuan Diputatu izana eta Kubara ere Ordezkari bezala bidalia izana. Eta Zarauzko herriaren alde beti zintzo jokatu zuena. Eta hain zuzen ere, Gregorio Arrue zendu zen urte berean hil zen Frantzisko Manuel Egaña hau ere, aurten ehun urte alegia. Ez al lioke, beraz, gure herriko Udalak omenaldiren bat eskaini behar? Hemen ditut nire alboan Antonio Alberdi gure Alkatea, eta Maite Etxaniz Euskara Zerbitzuko arduradun andereñoa. Beroriek dute hitza!

1876. urteko Apirilaren 26an izan zen aukeratua Gregorio Arrue Zarauzko idazkari bezala, nahiz eta, lehen esan dugunez, lehenagotik ere agiriak berak idatzi. Honela dio aktak: "El Señor Alcalde Presidente dio conocimiento a la reunión, de la renuncia que hizo el Secretario interino del Ayuntamiento de esta Villa D. Emilio Garcia (Martxoaren 17an izendatua bera) del cargo que ejercía, y en vista de ello se acordó nombrar para sustituirle, como en efecto y por unanimidad fue nombrado en tal concepto de interino: D. Gregorio de Arrue" (21).

Gregorio Arruek bere istilu eta gorabeherak izan zituen Zarauzko Udalarekin bere eskola maisutzari zegozkion diruak zintzo eta zuzen ordaintzen ez zizkiotelako. Hala azaltzen da behintzat zenbait agiritan. Abuztuaren 13koak, esate baterako, honela dio: "Asi mismo se dio lectura a una Circular del M.I. Señor Gobernador Civil de 2 del corriente, en que manda terminantemente, se le paguen al Profesor de Instrucción primaria de esta Villa D. Gregorio de Arrue sus haberes procedentes de sueldos devengados hasta el 31 de diciembre de 1875, y la Corporación teniendo en consideración que hace pocos días se le ha hecho a este funcionario otro pago de igual procedencia, y lo exhausto de sus cajas, ha acordado suplicar al Sr. Gobernador se sirva esperar hasta principios de octubre próximo venidero, en cuya época se le pagará su haber, contando para hacer esta súplica con la adquiescencia del mismo Profesor". Bihotz onekoa nonbait gure Gregorio Arrue, sei hilabetetako soldatak kobratu ezinik zebilen hartan! Akta honetan bertan

(21) Zarauzko Udaletxeko Artxiboa: *Libro de Actas de las sesiones ordinarias y extraordinarias del Ayuntamiento de esta N. y L. villa de Zarauz.* Se le dio principio el día 28 de Enero de 1876 y contiene noventa y nueve hojas útiles, 6 v. folioa.

izendatzen da Udaleko idazkari berria, Anselmo Murgoitio, artean Pasaia Donibaneko idazkaria. Soldata: urtean bost mila erreal eta etxe-bizitza (22).

Beste zenbait agiritan ere azaltzen da behin eta berriz Gregorio Arrue, bai bere soldatak, bai bere etxe-bizitzan egin behar ziren berritzeak ordaintzeko eskatzen, baina ez dago denak hemen aipatzerik luze joko bait liguke. Akta bat bai, aipatu nahi dut, bertan zenbait xehetasun interesgarri azaltzen bait da. 1877. urteko martxokoa da eta honela dio: "Leida la precitada solicitud del Maestro D. Gregorio Arrue, que manifiesta lleva cuarenta y tres años de ejercicio en la enseñanza de esta Villa (1834 urteaz geroztik beraz), mereciendo entre otras la honrosa nota que expresa la certificación de la Junta Local de la misma que acompañaba, y el haber sido clasificado en la primera clase por la Junta de instrucción pública de la provincia para el percibo del aumento gradual de sueldo, y que constituido en la avanzada edad de sesenta y seis a sesenta y siete años, agotadas sus fuerzas tanto físicas como morales, sordo además y con escasa vista, se considera en el caso de dimitir su empleo, siempre que el Ayuntamiento le conceda las dos terceras partes del sueldo actual y la habitación que le corresponden por vía de retiro o jubilación" (23). Hirutik bi zati eskatzen zituen Arruek, baina erdia besterik ez ematea erabaki zuen Udalak. Horra hainbat eta hainbat urtetan zintzo lan egindakoari ematen zaion sari xuhurra eta eskaxa! Eskola maisu gizarajoak beti gaizki ordainduak!

AZKENENGO URTEAK

Zahartua, akitua, indarrik gabea, gorra, ia itsua eta gaisorik aurkitzen du bere burua Gregorio Arruek. Baina oraindik ere beste hamahiru urtetan zehar liburuak euskaratze lanari ekingo dio gogotik. Baina halako batean etorri zaio azken ordua. Aurretik joanak zitzaizkion bere aita, 80 urte bete ondoren zendua, eta bigarren emaztea, 76 urte zituela 1885. urteko Azaroaren 7an hila (24).

---

(22) Ibid., 17 v. eta 18 folioak.

(23) Ibid., 69-70 folioak.

(24) Hona aitaren heriotze-agiriak dioena: "En doce de Octubre de mil ochocientos cincuenta y tres, murio en esta villa de Zarauz de edad de ochenta años, poco más o menos, Juan Antonio de Arrue, natural de Berrobi, viudo de Maria de la Asuncion de Rezola, natural de Albistur, y parroquiano de Zarauz: recibio los Santos Sacramentos de la penitencia, viático y extrema-unción: no testo. Al siguiente día fue conducido su cadáver a la Iglesia Parroquial de esta villa de Zarauz y hechos los sufragios de costumbre, fue trasladado al Cementerio de la misma, donde yace sepultado. Y para que conste firmo yo el Vicario, Dn. Luis de Guereca". Elizbarrutiko Artxibategia, Donostia: Libros Parroquiales, Parroquia de Zarauz (14), Libro 4.º de Finados, 1836-1885, 21 zenb., 70 folioa. Eta bigarren

Hona Gregorio Arrue zenaren heriotze-agiria:

"En la Villa de Zarauz, provincia de Guipúzcoa, Obispado de Vitoria, a los 22 días de Abril de 1890, yo el infrascrito Presbítero, cura-ecónomo de la Iglesia Parroquial Santa María la Real de la misma: *mandé* dar sepultura eclesiástica al cadáver de Don Gregorio Arrue, natural de Hernani, provincia de Guipuzcoa, de profesión Maestro de Instrucción Primaria, de 78 años de edad. Falleció a las diez de la mañana del día de ayer en la calle mayor número 39 de muerte natural ocasionada según certificación de facultativo por un catarro pulmonar crónico. Era hijo legítimo de Juan Antonio de Arrue, natural de Berrobi, provincia de Guipúzcoa, y de Maria Ascensión Rezola, natural de Albistur, provincia de Guipúzcoa. Se hallaba en el acto del fallecimiento viudo de Josefa Antonia Leunda, natural de Beasain, provincia de Guipúzcoa. Recibió los Santos Sacramentos de Penitencia, sagrado viático y extrema-unción. *No otorgó testamento* (azpimarratuta). Se le hizo entierro de cuerpo presente. Fueron testigos del sepelio Don Pedro Echave, Presbitero y Bernardo Macazaga, de oficio cantero, naturales y vecinos de Zarauz. Para que conste firmo fecha ut supra. Don José Manuel de Arizmendi, Cura-Ecónomo" (25).

Errejistro Zibileko agiria ere badugu eta bertan Gregorio Arrueren seme-alaben xehetasunak aipatzean, hauxe azaltzen da: "de los cuales viven casados en San Sebastián, casados, Dn. Juan de la Cruz y Dn. José María, murieron, Da. Josefa Joaquina y Dn. Antonio, y viven solteras en esta villa, Da. Marina (*Maria Balbina* jarri behar zuen) y Da. Francisca Ignacia" (26). Hementxe ditugu gure artean beraien zenbait oinordeko.

Hauxe gertatu zen hain zuzen gaur ehun urte Zarauzko gure herri honetan, bilduta gauden lekutik oso hurbil, Kale Nagusiko 39 zenbakidun etxean. Ospe eta ohore hainbat eta hainbat urtetan Zarauzko hauртxoen Maisu eta hezitzaile jator eta euskal idazle prestu eta ospetsu izan zen Gregorio Arrue hernaniar-zarauztar jaunari. Eta mila esker guztioi niri entzuteko izan duzuen arretagatik. Besterik ez.

---

emaztearenak berriz: "Como Cura-Ecónomo de la Iglesia Parroquial Santa María la Real de la villa de Zarauz, provincia de Guipúzcoa, Obispado de Vitoria: mande dar sepultura eclesiástica al cadáver de Josefa Antonia de Leunda, natural de Beasain, de edad de setenta y seis años, casada con Don Gregorio de Arrue, natural de Zarauz (sic), maestro de escuela jubilado, e hija legítima de Juan Bautista de Leunda y Nicolasa Elizalde, naturales de Beasain. Falleció el día precedente a consecuencia de un catarro pulmonar, habiendo recibidos los Santos Sacramentos de penitencia, sagrado viático y extrema-unción: no testó; y fueron testigos Bernardo Macazaga, cantero y Saturnino Alcorta, albañil, naturales de Zarauz. Y para que conste firmo en Zarauz a los siete días de noviembre de mil ochocientos ochenta y cinco. Don José Manuel de Arizmendi". Zarauzko Parrokiako Artxiboa: Libro 5.º de Finados, años 1885-1890, 103 zenb., 3 folioa.

(25) Ibid., 1890, 26 zenb., 58 folioa.

GREGORIO ARRUEren *SANTA JENOBEBAZ* BESTE ZERBAIT

Zarautz, 1990-IV-21

Maite Etxaniz

Hainbeste urtetan Zarautzen bizi izan zelarik bertako hizkeraz baliatu ote zen? Hauxe izan zen *Santa Jenobebaren Bizitza*-ren aurrean jartzerakoan neure buruari egin nion lehen galdera, eta hona hemen, luze gabe, erantzuna, ondo baino hobeto Lino Akesolok liburuari egindako sarreran emana:

> "...Ernaniar onen euskera, giputza dela erraz ulertzekoa da. Asko zor diola esango nuke Aita Kardaberaz eta Aita Mendibururenari; Lapurdi-aldeko aztarnaren bat ere ageriko zaio; baiña Arrueren euskera, geien batez bere erri ingurukoa da, iñolaz ere".

Baina azterketa sakonagorik egin gabe, zaila iruditzen zaigu erabakitzea zer izan daitekeen Kardaberazen eragina eta zer hernaniar biek herri bereko hizkeraren iturritik edana. Dena den, ezin uka genezake asko dutela amankomunean, nahiz berezitasun nabarmenik ere izan. Argi dagoena, eta inolako dudarik gabe gainera, zera da, Arrue ezer gutxi baliatu zela Zarautz-ko hizkeraz.

Zaitegik ere aztertu zuen Arrueren hizkera, gehienetantsu zabarra eta mordoilokadak metaka omen dituen hizkera izan arren, "lore eztia" deitzen duena.

Hona hemen Arruek berak auzi honetaz esaniko hitzak:

> "Euskeraren aldetik ipiñi nezakean, askoz errazago, alere, itz euskeratsuagoakin, ta gizon adituai zerbait obeto irudi zegikien eran; baña oroiturik ez nijoala oyentzat, ezpada ez jakin, ezta irakurtzen ta irakurtzen dutenak zer esan nai duan doi doya aditzen duanarentzat eskribitzera, sayatu naiz alegiñaz, zuk adi zenzakean eran ipintzera".

Gorago aipatutako sarrera horretan bertan, Lino Akesolok Gregorio Arrueren hizkeraren zenbait ezaugarri ematen dizkigu "Gregorio Arrue idazlearen Santa Jenobebaz zerbait" izenburupean. Bere lanari jarraipen bat eman nahian, gehien bat morfologiari baitagokio, sintaxiaz zerbait esan nahiko nuke. Baina ez da nere asmoa *Santa Jenobebaren Bizitza*-ren sintaxia zehatz mehatz aztertzea, interesgarri gerta daitezkeen zenbait ohar egitea baizik. Honetarako perpaus bakun eta koordinatuak hartu ditut aztergai, subordinazioak arreta haundiagorik merezi duela bai baitakit.

Halere, eta nere lantxo honekin ahalik eta ikuspegirik orokorrena eskaini asmoz, hona hemen labur– labur menpeko perpausen zenbait ezaugarri:

1. Esaldi konpletiboak ematerakoan –eNIK ez du erabiltzen, iparraldeko ohiturari jarraituz:

(1) "Pozak onela izu zezakeala, uste ez nuen" (133. orr.).

Gehien darabilen menderagailua –eLA da, gehienetan bakarrik baina, eta ez gutxitan, perpaus hasieran EZEN duelarik.

(2) "Iruditzen zait esan nahi didazula..." (54. orr.).

(3) "Erantzungo dizuet ezen onek dakartzien gertakaririk andi edo printzipalenak guziz egiazkoak direla,..." (34. orr.).

EZEN partikularen erabilera dela eta esan beharra dago ez Mendiburu ezta Kardaberazengan ere, ez dugula horrelakorik topatuko.

Subjuntibozko adizkiez ere ematen ditu, atzean -eLA dutela beti:

(4) "Erregu zayezu gizonai eraman zaitzatela beragana" (93. orr.) eta adizki jokatugabeez ere bai:

(5) "Galdua zedukan ondra biurtzea agintzen zion" (51. orr.).

2. Erlatibozkoak osatzerakoan ohizkoa den bukaerazko -eN darabil, aldiz bakarrik, aldiz aurretik NOIZ, ZEÑA bezalako partikulez lagundurik:

(6) "Senar aiñ on bati zegokion erakoa zan".

(7) "Etorriko da eguna, noiz eta emen arkitzen garenok pozezko malkoakin (...) esker milla emango diozkagun" (38. orr.).

(8) "Zeña baitari zeritzayon Drako" (45. orr.).

3. Izenlagun balioa duten -eLAKOz osatutato perpausak ere ageri dira:

(9) "Obeditzen ziolakoa egiten zuen" (45. orr.).

4. Zergatizko edo kausalak egiteko -eLAKO, -eNEZ GEROZ, ZEREN... -eN, eta NOLA... BAIT- ematen ditu oro har. Azken hau ez dugu

aurkituko Kardaberaz eta Mendibururen lanetan, On Manuel Lekuona eta Patxi Altunak diotenez.

Hona hemen adibide batzu:

(10) "Esker milla, Jauna, nere semetxoa eta ni gizonen atzaparretatik atera gaituzulako" (67. orr.).

(11) "Orren ona zarenez geroz ekaizkidatzu argi bat, tinteroa eta papera" (56. orr.).

(12) "Jainkoak guzia beiñgoan eta begien itxi-idiki batean egiñ zezakean, zeren guzia dezakeana dan" (81. orr.).

(13) "Eta nola sillarik eta mairik ez baizeukan, eskribatu zuen sotargañean ondorengo karta au" (56. orr.).

"ALABAÑA" juntagailu adbersatibora ere jotzen du zenbaitetan kausa adierazteko:

(14) "Jenobebak ardiari, bere ondoan ipiñi eta bere onera erakarri nayez bere kalabazako esnetik aoan sartu zion, baiña alperrik, alabañan ordurako hilla zegoan" (85. orr.).

5. Kontsekutibetarako berriz, honako forma hauetara jotzen du: "ALATAN NON... -eN", "AIÑ... NON...-eN":

(15) "Alatan, non ama guziak beren alabai gauza on guzietarako ispillutzat (...) ipiñi oi zieten" (36. orr.).

(16) "Aiñ gozatsu aiñ amorez (...) hitzegin zien non bere etxekoandreaz (...) prendatuak guziak geratu ziran" (39. orr.).

Baina batzutan menderagailurik gabe ere bai:

(17) "Alatan non bere ustean egiña daukaguna egingabe idukitzeagatik, eskuko beatz bat emango likek" (36. orr.).

6. Denborazko perpausetarako makina bat molde desberdin erakusten dizkigu, baina honi deritzogu bitxiena:

A. erroa + "EZ" + "AL" + A. laguntzailea.

(18) "Neskatx onek Jenobebagandik aldegiñ ez al zuen, sartu ziran presondegi artara gizon armatu bi" (61. orr.).

7. Dagokigun azterketari ekiteko, zenbaitetan gipuzkeraz ohizkoa den izen sintagmaren ordena urratzen eta bizkaierazkora jotzen duela esango dugu, hala nola:

(19) "Zaldun bi" (40. orr.).

(20) "Gizon armatu bi" (61. orr.).

Kardaberazek ere ematen digu honelakorik:

(21) "Gauza bi alere onen gañean ciertoac dira".

Beste kasuren batzutan ere aldatzen du elementuen ordena:

(22) "Bakarrik zugan pentsatuko det" (49. orr.).

(23) "Asko milla gizon" (91. orr.).

Ezezko esaldietan, eta adizki perifrastikoez soilik arituko gara piskatean, ez du beti aditz laguntzailea aurreratzen, maiz irakur daitezkeelarik honelakoak:

(24) "Gordetzen ez nau" (41. orr.).

(25) "Uzten eztit" (56. orr.).

Kardaberaz eta Mendibururengan ere aurki ditzakegu antzekoak:

(26) "Izan eztu".

(27) "Escatzen ez dizu" hernaniarrarenak, eta

(28) "Eguiten ez dute".

(29) "Ecusten ez dugu" oiartzuarrarenak.

Ez dira bakarrak ordea, hona ordenaren ez aldatze horretaz zer dioen Patxi Altunak *Mendibururen Idazlàn Argitaragabeak*-ei egindako sarreran, eta ematen duen adibidea:

> "Añibarrok, Asteasuko Agirrek eta bezalaxe, ezezko perpausetan partizipioa eta laguntzailea trukatu gabe ematen ditu maiz, beste batzuetan ez, ordea".

(30) "Cenzanz andiric ez duèn bacatariac ez du anitz beguiratzen becatuz galdu duèn cerura ta damu andiric arcen ez du hura galduta; cerura baño gueiago beguiratzen ez du bere becatu beràz irabaci duèn sulece infernura ta ez dute anitz izutzen...".

Iparraldera jotzen badugu, aurkituko ditugu honelako egiturak, hau da Txomin Peillenek dioena Egiategiz eta haren ezezko perpausez:

> "...Ezezko esaldian aditz ezezduna azkenean jartzen du (31) ohoriak eskilima hek atzürka e'litiro".

Baina hau ez da beti gertatzen Egiategigan, ikus beste hauek:

(32) "Deusere etziela resolbitzen aiten thonbetan jarririk baizik".

(33) "Egündano etzait bürian sarthü".

Ez da batere erraza fenomeno hau azaltzea, legerik ez, baina halako joeraren batzu aurkitu ditugu Arrueren kasuan, aditz laguntzailea noiz aurreratzen duen zehatz-mehatz jakiteko ezpada ere, susmatzeko bai. behintzat.

Gorago aipatutako autoreek bi egitura motak noiznahi ematen dituzte, Arruek aldiz, gehienetan trukaketarik gabekoa ematen du, beraz, errazago gertatuko zaigu ohizko leku aldaketa noiz egiten duen azaltzea, alderantzizkoa baino.

Aginterazko adizkietan, aurreratzen du aditz laguntzailea:

(34) "Ezezazu arren iñor sentenziatu" (57. orr.).

(35) "Ama, etzazu negarrik egin" (54. orr.).

(36) "Nire lepoa ebakiko didatenai ere ez egiezu ezer egiñ" (58. orr.).

Galderazko perpausetan ere bai:

(37) "Ezta eztezu begiratzen toki zeiñ izugarrian gauden?" (53. orr.).

(38) "Eztezu aditzen?" (78. orr.).

Baina ez beti:

(39) "Esan etzidazun au?" (91. orr.).

Adierazkorretan ere honelakorik aurkitu dugu, baina hain gutxi izanik, salbuespen gisa har genitzake:

(40) "Ez det nai eraman" (58. orr.).

(41) "Eta ez diozute begiratzen" (127. orr.).

Gainontzekoetan, batzutan sintaxiak beharturik:

(42) "Etortzen etziranak" (83. orr.)

eta bestetan ageriko arrazoirik gabe, ez du erroa eta laguntzailearen arteko trukaketarik egiten:

(43) "Pinturak zer dan ezagungo ez luke" (34. orr.).

(44) "Jenobebak neskatx(a) au ezagutu etzuen" (127. orr.).

Adibideak ematen jarrai genezake, baina ikus beste hau non bi erabilerak perpaus berean azaltzen diren:

(45) "Ez det nai eraman eternidadera iñorentzat gorrotorik, eta odol tanto bakarrak ere nigatik ixuri bear eztu" (58. orr.).

"Ixuri bear eztu" eman duen bezalaxe goragoko "ez det nai eraman"en partez "eraman nai ez det" eman zezakeen.

Jakina da oro har ezezko perpausetan galdegaia laguntzailea eta erroaren artean doala, baina aditz laguntzailea aurreratzen ez denean erroa eta honen artean ez da ezer tartekatzen "ez" aditzlaguna ezpada, noski. Baiezko adizkietan ere bi elementu hauen artean ez dugu besterik sartzen ("omen", "ohi", "al", "ote" eta "ari" bezalakoak ezik) beraz, badirudi galdegaiari dagokionez, ezezko hauek baiezko adizkiek bezalaxe jokatzen dutela, hau da, eten baten ondoren aditza bera edota bere ezezkotasuna dirateke galdegai, eta gainontzekoetan, aditzaren azentupean, hitz andana berean ahoskatu eta bere ezkerretara doan elementua.

Adibidez:

(46) "Zuzaz aztuko ez naiz" (53. orr.).

(47) "Pozak onela izu zezakeala, uste ez nuen" (133. orr.).

Lehenengoan argi dago "zuzaz" dela galdegaia, gorago aipatutako baldintzak betetzen dituen neurrian behinik behin, ezin esan bait daiteke "aztuko zuzaz ez naiz" eta are gutxiago "aztuko ez zuzaz naiz", eta "zuzaz" amaierara pasatuz gero berriz, argi legoke ez lukeela galdegai funtzioa beteko.

Bigarrengoan aldiz, adizkiaren aurretik eten bat dagoenez, bere ezkerretara doana ezin jo genezake galdegaitzat, baiezko perpaus batean joko ez genukeen bezala.

8. Perpaus koordinatuetara pasatuz gero zenbait ohar egingo dugu kopulatiboez, Patxi Altunak dioen bezala, mendebaldeko euskalkietako hiztunoi belarrian min piska bat ematen diguten esaldiak aipatuz.

Arruek ez du "BAITA ERE", "ERE BAI" formarik ematen, hauen ordez "ERE" soilik erabiltzen du gehienetan, batzutan "ETA"z laguntzen badu ere:

(48) "Topatu zuen ere an inguruan" (71. orr.).

(49) "Zu beti gure ondoan zauzkagu, iñor bizi ezten eremu onetan eta neguko gau luze onen erdian ere" (74. orr.).

Ezezkoetan aldiz, honelakoekin egiten dugu topo: lehenengoa guztiz arrunta zaigu, bigarrena ez hainbeste:

(50) "Ezta bizirik geranik ere" (92. orr.).

(51) "Eta bere emaztearen hitzak aditzen ere etzituen" (115. orr.).

"ERE" perpaus amaieran "BAI" edo "EZ" gabe jartzeko ohitura hau ekialdekoa da, dena den, Mendiburuk ere jarraitzen dio:

(52) "Nior ere".

(53) "Nioiz ere".

Kardaberazek berriz bitara ematen digu:

(54) "Ta emen ere".

(55) "Emen ere bai".

9. Perpaus adbersatiboetara jotzen badugu, Kardaberaz eta Mendiburugan bezalaxe, gaur egun ahaztuxea dugun "EZPADA" juntagailuaren maiztasunaz ohartuko gara, Arrueren garaian bizi bizirik zegoen juntagailuaren maiztasunaz, hain zuzen ere:

(56) "Ez nigatik, ezpada nere seme gaxoaren errukiz".

"BAIZIK" berriz, gaztelerazko "más que", "salvo" emateko erabiltzen du gehienetan:

(57) "Alaba bat baizik etzuten" (35. orr.).

Esanahi berberaz hona hemen beste forma hauek, tartean "EZPADA" ere badagoelarik:

(58) "Ona besterik egiñ ez dik" (64. orr.).

(59) "Eta orroa izugarriak beste ezer" (67. orr.).

(60) "Zu beste iñor eztaukat" (48. orr.).

(61) "Toki una zeiñ izugarria zan ezagutzeko ezpada serbitzen etzion" (47. orr.).

"ORDEA" juntagailuaz egiten duen erabilera arrotz gertatzen zaigu, bigarren perpausaren lehen sitagmaren ondoren edo ta azkenean jarri beharrean, honen buru buruan jartzen baitu, Axularrek bezalaxe:

(62) "Iñongo adiskidek ezin lagun legiket; ordea zure besoaren indarra galdu ez da" (48. orr.).

(63) "Nere antsia larriak emen itotzen dira; ordea zuk ikusten dituzu nere malkoak" (48. orr.).

10. Juntagailu disjuntibotzat "EDO" darabil gehienetan, "ALA" oso gutxitan, halere ez da Mendiburu bezain urrun joaten urritasun honetan, honek ez bait zuen "ALA"rik ematen, bere Idazlan Argitaragabeetan ikus daitekeen bezala.

Arrue aldiz, nahiz eta perpaus adierazkorretan ezezik, galderazkoetan ere "EDO" nahiago izan, "ALA"z ere baliatzen da:

(64) "Egia da, edo ez, edo ta nik ames egin ote det?" (144. orr.).

(65) "Etzuen begiratzen egitera zijoan gauza ona ote, edo gaiztoa zan; baizik irabazi edo atsegiñen bat emango ote zion ala ez" (44. orr.).

11. Bukatzeko "BADA" ondoriozko juntagailuaz hitz bi, juntagailu honek aurreko solasaren ondorioa edo ematen du, baina badu beste erabilerarik ere, batzutan, nahiz gaur egun zentzu hau galduxea dagoen, kausal esplikatiboarena, eta bestetan betegarri soilarena.

Hiru erabilera hauek aurkitzen dira *Santa Jenobebaren Bizitza*-n.

Lehenengoa ondoriozkoa: gehienetan adizkiaren ondoren azalduko da juntagailua, baina baita perpaus hasieran ere:

(66) "Utzi zayegun bada gauza oyei" (118. orr.).

(67) "Bada orretxek hiri, seaskakoa intzala ainbeste on egin zian" (127. orr.).

Bigarrena, kausal esplikatiboa: honetan, juntagailua menpeko perpausaren buruan azalduko da:

(68) "Zure semea ere hill bear da, bada kondeak beretzat ezagutu nai eztu" (56. orr.)

eta batzutan "bait-" menderagailuaz lagundurik:

(69) "Bada nola gauza ayek lenengo aldiz aditzen baizituen, biziro mella andia egin zioten" (101. orr.).

Eta azkena, betegarri gisakoa:

(70) "Agur bada" (59. orr.).

BIBLIOGRAFIA

ALTUNA, Patxi: "Juntagailu kopulatiboak".

ALTUNA, Patxi: "Perpaus adbersatiboak".

AROCENA, F.: "La versión guipuzcoana del «Peru Abarca» de Moguel, examen preliminar", in BRSAP 1948 (165-194, 379-380. orr.).

ARRUE, Gregorio: *Santa Jenobebaren bizitza,* Klasikoak bilduma, Erein, 1987.

EGIATEGI, Jusef: *Filosofo huskaldunaren lehen ekheia,* Txomin Peillenek paratua, Euskaltzaindia, Bilbo 1983.

EUSKALTZAINDIA: *Euskal Gramatikaren lehen urratsak* I, II.

GOENAGA, Patxi: *Gramatika bideetan,* 2. argitalpena, EREIN, Donostia, 1984.

KARDABERAZ: *Euskararen Berri Onac,* Auspoa, Tolosa, 1984.

KARDABERAZ bilduma I: *Kardaberaz Aitari omenaldia,* Kardaberaz Bazkuna, Donostia, 1971.

MITXELENA, Koldo: *Historia de la literatura vasca,* Erein, Donostia, 1988.

ONAINDIA: *Euskal literatura*, I, 275-278. orr.

PATXI, Altunak paratua: *Mendibururen idazlan argitaragabeak*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1982.

VILLASANTE: *Historia de la literatura vasca*, Ed. Aránzazu, 1979.

VILLASANTE: *Sintaxis de la oración compuesta*, Ed. Franciscana de Aránzazu, 1976.

ZAITEGI: "Idazti baten eungarren urteburuan", in *Euzko Gogoa* 1958 (387-419. orr.).

GREGORIO ARRUE, MAZOREN LEHEN ITZULTZAILEA

Zarautz, 1990-IV-21

Jose Antonio Arana Martija

Berrogeita zazpi urtedun eskola maisua zen Gregorio Arruebarrena Rezola (1811-1890) bere lehen itzulpen lana Donostian argitara eman zuenean: *Cristauaren Dotrinaren Jaquinbide azaldua, edo Asteteren esplicacioac Santiago Mazo Jaunaren liburutic.* Nahiz eta bi urte lehenagotik prestatua izan itzulpena, ez zuen 1858 arte kaleratu ahal izan hitzaurrean dioskunez.

Baina hainbat xehetasun ikertu beharrean aurkitzen gara data eta izenburua ikusi ondoren. Pio Zuazuaren moldiztegian 1858an inprimatu zela dio liburuaren azalak. Liburua urte horretan inprimategian paraturik egon arren, bi urte beranduago kaleratu zela esan beharko dugu, Severo Leonardo Andriani Escofet Iruñeko Apezpikuak 1860.eko Otsailaren 20an eman bait zion inprimatzeko baimena. Baina elizaren baimena delata, beste data bat ere ematen zaigu idazle batzurengan, behintzat. Jokin Zaitegik *Eusko Gogoan* esaten digunez, "1848 garren urtean iasoa zun Arruek argitaratzeko Elizaren baimena, Iruñako gotzaiak emana, hain zuzen. Halere, hamar urte handitan, idaztia zokoratuta euki zun, diruezak eraginda, nonbait". "Idazti baten eungarren urteburuan" delako artikuluan ematen digu data hau Zaitegik. Ez dakit nondik atera zuen Zaitegik baimenaren data hau Arruek dioenarekin bat ez bait dator. Itzulpena egin zuenean "amabi eginaldi (edo edizio) berri galantac eguin badira..." dio hitzaurrean, eta Mazoren hamabigarren argitarapena, erdarazkoa hain zuzen, Valladoliden 1856an Juan de la Cuesta inprimatzaileak egina zen.

Hori hala delarik, Arruek berak ematen digu atzerapenaren arrazoia: "Ipini nuan Mazo Jaunaren liburu gucia cearo ta oso eusqueraz; ta lan au eguiña ta gure Obispo Jaunac ontzat emana cegoan sasoyan, gogora citzadan berriz, baldiñ cegoen becela ateratzen bazan, asco costaco zala, ta beragatic guchic erosi al izango zutela, ta emendic sortu citzadan berriz liburu hura al nuan gucia laburtzeco asmoa. Lan au ere eguin nuan, Jaunaren lagunzarequiñ; baina ez neucalaco cerequin arguitara

eman zocoatu zan, alic eta Apaiz Jaun batec, izanic nere lanaren berri, escatu ciran, pagatu ciran nere nequea, ta gañera galanqui costatzen zayola, zuc, iracurle maitea, animaraco prochuric asco eguin deguizuquean, liburu au izan dezazun, eman da arguitara, ecusten dezun becelacoa". Hemen dugu bada, Arruek berak idatzita, Dotrina honen itzulpen eta argitaratzearen historia.

Santiago Jose Garcia Mazo 1768an jaioa zen eta Valladoliden hil zen 1849an. Teologia eta Filosofia ikasketak Salamancako Unibertsitatean egin zituen eta 1796an apaiztu zen. Apaizgoan hainbat tokitan ihardun ondoren, Valladolideko San Salvador izeneko parrokian lortu zuen mesedeko kargua edo benefizioa eta 1822an bertako katedralean lehiaketaz irabazi zuen kalonje kargua. Hamabost urte beranduago, 1837an, kaleratu zuen bere dotrinaren lehen argitarapena: *El catecismo de la doctrina cristiana. Explicaciones del Astete que convienen también al Ripalda.* Bi urteren epean, beste bi argitarapen atera zituen bertan eta 1841ean Madriden ere kaleratu zuen beste argitarapen bat. Frantsesera itzulita Parisen agitaratu zuen bere dotrina 1845 eta 1847 urteetan, eta azken urte honetan portugesera itzulita ere Oporton agertu zen, itzultzailea euskal izeneko Jose de Urcullu izan zelarik. Esan dugunez, 1856rako eginda zeukan Mazok hamabigarren argitarapena, 544 orrialdeduna. Eta hau izan zen Arruek itzuli zuena. Gero 1858rako laburpena ere egina zeukan eta aipatu apaizaren laguntzaz 1860an ezagutzen dugun eran kaleratu zuen.

Zergatik eman zion baimena Iruñeko Apezpikuak? Dakigunez, Gasteizko Elizbarrutia sortu arte, Gipuzkoako herri asko Iruñeko Elizbarrutian zeuden kokaturik. Espainiako Estatuak eta Erromako Egoitza Santuak sinatuko zuten Konkordatuaren Proiektua aurkeztu zenean, 1849.eko Azaroaren 19an, hiru Elizbarruti berri sortzeko asmoa agertzen zen, hots, Ciudad Real, Madrid eta Gasteizkoak. Eta 1851.eko Martxoaren 16ko Konkordatua urte bereko Irailaren 5ean Erromak berretsi zuenean, aipatu hiru Elizbarruti berriak ofizialki sortuak izan ziren. Andriani Iruñeko Apezpikua zegoen agintean 1829tik hasita, eta Gipuzkoako Diputazioak 1861.eko Urtarrilaren 12an honako erabaki hau hartu zuen: Andriani bizi zen artean Iruñeko Elizbarrutiari loturik geratuko zirela honen menpean zeuden Gipuzkoako parrokiak. Urte berean hil zen Andriani Apezpikua eta 1862.eko Apirilaren 28an eraiki zen Gasteizko Elizbarrutia. Beraz, 1860an Dotrina argitaratzeko baimena ematea Iruñeko Andriani Apezpikuari zegokion. Eta hala izan ere, esan dugunez. Katalana zen Apezpiku hau eta bera baino lehenago Sadako nafar bat izan zen 1815etik 1829 arte kargua eraman zuen Joaquin Xabier Uriz eta Lasaga, eta Andrianiren ondoren beste Oliteko nafar batek bete zuen hutsunea, Pedro Cirilo Uriz eta Labairu, 1862tik 1870 arte. Bi Apezpiku horiek ere hainbat baimen eman zituzten euskal dotrinak argitaratzeko.

Beste galdera batzuren artean, hau ere badugu erantzuteko. Zergatik aukeratu zuen Arruek Mazoren Dotrina? "Urrea baño estimagarriagoa" zela zioskun Arruek hitzaurrean. Izatez, Gaspar Astete josulagunarena (1537-1601) eta Jeronimo Martinez de Ripaldarena, josulaguna hau ere (1536-1618) izan ziren ordurarte gehien inprimatu eta erabiltzen zirenak. Asteteren *Catecismo de la Doctrina Cristiana* 1599an argitaratu zen, 600 etik gorako edizioak ezagutu zituelarik. Ripaldaren *Catecismo y exposición breve de la doctrina cristiana* urte batzu beranduago, 1618an, kaleratu zen. Asteterena askoz ere gehiago ezagutua izan zen gure inguruetan Ripaldarena gehiago erabilia izan zelarik Madridetik beherako herrialdeetan. Ia berrehun urte geroago Asteterena gehitu zuen Gabriel Mateo Menendez de Luarca eta Queipo de Llano apaiz asturiarrak, Valladoliden honek ere bere *Catecismo de Doctrina Cristiana* 1787an argitara eman zuelarik. Xehetasun historiko honek badu zerikusirik gure euskal dotrinekin. Bonaparte printzeak, esate baterako, Asteterena erabili zuen eredutzat Iparraldean eta Nafarroan agintzen zituen itzulpenetarako (Celhabe, Samper, Marco, Minondo, Goyetche, Fabre eta abar); eta Menendez de Luarcak gehitua jarri zuen eredutzat Bizkaia eta Gipuzkoan egin ziren itzulpenetarako (Uriarte, Antxotegi, e.a.). Hauetatik batzu argitaratu gabe geratu ziren eta argitaratuak ere ez zituen irakaskintzarako asmoetan kaleratu dialektologia estudioak burutzeko baizik.

Gure Gregorio Arruek Mazorena aukeratu zuen euskaratzeko, Astete eta Ripalda bateratuz, izenburuak dioenez: "Explicaciones del Astete que convienen igualmente al Ripalda". Bazegoen orduan itzulpen honen beharrizanik? Gipuzkoari dagokionez, Juan de Irazustarena zegoen, 1742an lehen argitarapena egin ondoren hainbat aldiz kaleratua, Arruerena baino lehen 1852an edizio bat egin zelarik. Gipuzkoak Artzapezgo nagusiko apaizen batzarre edo Kongregazioak ere 1855ean, Irazustak bezala Astetetik hartua, argitaratu zuen bere Dotrina. Arruenaren ondoren maiz azaldu ziren bi dotrina hauek, baita ere beste batzu, hala nola, Juan Jose Galarmendirena 1864ean, Gatzagako Abade Jaunarena 1862an, eta besteren bat. Bizkairako bost dotrina zeuden sasoi hartan: ezagunena, Bartolome Olaetxearena, hainbat aldiz argiratua eta Arrueren garaian 1855ean kaleratua. Martin Arzadunena ere, 1731ean lehendabizi argitaratua, hainbat aldiz agertu ondoren, 1856an azaldu zen berriz. Juan Antonio Mogelek ere, Astetetik hartuta, 1849 eta 1866an birargitaratu zuen berea. Eta hor zeuden Busturiko Bikarioak eta Laudioko abadeek orduan atera zituztenak. Nafarroara bagoaz, hor zeuden Baztango Valleco Parrokoak 1852 eta 1859an atera zituenak. Eta Iparraldean David d'Astrosek atera berria zuen 1855ean birargitarapen bat. Hainbat dotrina kalean izanik, nola ausartu zen Arrue itzulpen eta argitaratze ardura eta nekeak hartzera?

Dirudienez, ez zuen uste Arruek hainbeste euskal dotrina zegoenik, Gipuzkoako esparruari begiratuz, behintzat. "Nola diteque –galdetzen du

hitzaurrean– gaztelauac eta erreinu arrotzetarañocoac ere, beste gai gucien gañean becela, dotriñaren gañean ere ederqui itzeguiten duten, aimbeste liburu daucatelarik, berriz au ateratzea, ta gure euscaldun gaxoac berriz añ liburu guchi beren izcuntzan iduquiric, au euscarara itzultzeco asmoric beretaco iñorc ez artzea?" Bestalde, *Cristauaren escu-liburua* (1863) delakoaren hitzaurrean dioenez, "beti lengoa bera, gauza guchi batzuec gueituaz beñ, berriz eta ascotan moldizquidatua izan da". Juan Antonio Ubillos-entzat Juan Claudio Fleuri-ren Dotrina berri ekarlea bazen, Arruerentzat Mazorena, horrez gain, "urrea baño estimagarriagoa" zen, zeren "eracutsi dizkigu ederqui cristau gucioi gure erligioaren anditasun, edertasun, aberastasun ta santutasun miragarriac".

Gainera itzultzaile ofizioa hasteko grina ere izango zuen eta beste batzuk itzulitako berbera ez zuen berriz itzuli nahi. Esan dugunez Dotrina honekin, eta berandu, hasi zen Arrue itzultze lanetan. Aipatu *Cristauaren escu-liburua* kaleratu ondoren, eta *Aita San Ignacio Loyolaco* (1866) eta *Santa Genovevaren vicitza* (1868) argitaratu baino lehen, itzulpen lanari ekin zion Arruek ezagutzen ez den lan bat prestatuz: *San Juanen Ebangelioa.* Gipuzkoako Batzarre Nagusiek saritu zioten lan hau 1865ean lau urte beranduago, 1869an, Jose Ignacio Arana josulagunari igorri ziona, hain zuzen, eta honek bere argitaragabeko Bibliografian aipatzen duena.

Bere bizitzaren azken hamarraldian, 1880ean, hasita, eman zigun Arruek hinbat lan. 1890.eko Apirilean hil ondoren, Eusebio Lopezek argitara eman zuen bigarren aldiz 1895ean Arrueren Dotrina. Baina bizirik zegoelarik eman zioten Mazori, eta bide batez Arrueri, merezi zuten onespena. Mariano Miguel Gomez Gasteizko Apezpikua zelarik antolatu zuen Elizbarrutiko Sinodoa 1885ean. Eta Sinodoaren Konstituzioetan hara zer dioen lehen Tituluak: "Promover el Catecismo Romano de Pio V y el de Mazo para que se valgan de ellos los sacerdotes en sus explicaciones; y el de Astete para los fieles, mientras no se publique el parvo Catecismo según la mente del Santo Concilio Ecuménico Vaticano". Orain bai ikus dezakegu Arrue ez zebilela oker Mazoren dotrina aukeratu zuenean. Beste Nafarroako Dotrina batek esaten zuenez, "Apaizendako" egokiena Mazorena zen, eta Arruek egindako itzulpena beharrezkoa izatera iritsi zen.